

## Auzoz Auzo

## Intxaurrondo

## Auzoa biziberritu nahian

Hilaren 4an hasi ziren Intxaurrondo Zaharreko jaiak.

Jai Batzordeko kideek adierazitakoaren arabera, azken urteotan Intxaurrondo Zaharreko auzo bizitza moteldu egin da. Hori dela eta, aurtentzen auzoko zenbait taldek, elkartetek eta lagunek ahalegin

berezia egin dute jaiak biziberritzeko.

Auzoko Jai Batzordeko kideak pozik dira zabaldutako laguntza deiak izandako oihartzunaz, aurreko urteetan baino talde gehiago aritu baitira feston antolaketan. Antolatzaileak bizilagun guztien gustuko egitaraua presta-

tzen saiatu dira, eta baita lortu ere, izan ere, denek izango dute zer gozatua datozen egunotan.

Asteburu epela izango dute auzotarrek. Ostirala, Gazte Eguna izango da. Beraz, gazteentzako jarduerak antolatu dira: gazte bazkaria, jokoak, danborrada.

Gau partean Joxe Ripiau, Ttak eta Nor? taldeek kontzertu bat eskainiko dute. Artisau feria eta sagardo eguna izango dira larunbateko gozokiak, eta igandean herri kirolak.

Azkenik, hilak 14a, auzoko erretiratuen eguna izango da.

## EGITARAUA

## Ostirala 8, Gazte Eguna

11.00 "Punteria txapelketa", Intxaurrondoko Gaztetxean  
 14.00 Gazte bazkaria, Intxaurrondoko Gaztetxean  
 16.00 Haur jolasak "Xaximiku" taldearen eskutik, parkean  
 17.00 Puzgarri guda, Gaztetxean  
 18.00 Txokolate jana, parkean  
 20.00 Triki-bertso-txalaparta-poteoa  
 21.00 Herri danborradaren irteera, Zulo Zahar elkartetik  
 22.30 Kontzertua: Joxe Ripiau, Ttak eta Nor?  
 02.00 Joko barregarriak txosnetan



## Larunbata 9

10.00 Diana  
 11.00etatik 14.00etara eta 16.30etatik 20.00etara Artisauen II. Azoka  
 12.00 Haur danborrada  
 16.00 Mus Txapelketa, "Erdikoa" tabernan  
 17.00 Haurrentzako herri kirolak  
 17.30 Sagardo Eguna, parkean, trikitilariek alaiturik

18.00 Buruhandiak eta erraldoiak  
 19.00 Bertsolari gazteen saioa  
 20.00 Pala txapelketako finalak, pilotalekuan  
 21.30 Herri afaria, Intxaurrondo kalean  
 23.00 Dantzaldia "Kristina eta Amaia" bikotearen eskutik  
 00.30 Zezensuzkoa

## Igandea 10

10.00 Diana  
 18.00 Herri kirolak. Ondoren, dantza emanaldia Intxaurrondoko dantza taldearen eskutik  
 20.30 Sardin jatea

## Osteguna 14

11.00 Meza  
 13.30 Aiton-amonentzat bazkaria eta dantzaldia

**GANBARA**  
 taberna • erretegia  
 San Jeronimo 21 - Tel.: (943) 422575 - DONOSTIA

**TXALUPA**  
 TABERNA  
 JATETXEA  
 Fermin Calbeton 3  
 Tel.: (943) 429875

## Parte Zaharreko pintxorik goxoenak!

**TABERNA**  
  
**MARTINEZ**  
 Mota guztietako pintxo hotzak eta beroak  
 Abuztuaren 31 kalea 13  
 Tel.: (943) 424965

**ZERUKO**  
 taberna  
 jatetxea  
 pintxoak, kaxuelitak eta olagarroa.  
 Eguneroko menua: (eguerdian eta gauean)  
 Arrandegi kalea 10  
 Tel.: 943 42 34 51

**SPORT** taberna  
**Kafeetan parerik ez!**  
 Fermin Calbeton